

DONOSTIako  
EMAKUME GEHIENAK  
BORTXATU ZITUZTEN.

DONOSTIako 9.000 BIZTANLETATIK,  
2.500 HIRITAR MILITARREK, GOSEAK  
ETA IZURRITEEK ERAHIL ZITUZTEN.

HIRIA SUNTSITU ETA  
URTE ASKOTARAKO  
MISERIARA KONDENATUA

# DONOSTIA 1813

(...) Horiek guztiak ikusita, bezperako arrats eta gaeuan aliatuen jokabidea zital eta bihogzabeaizan zela ondorioztatu nuen: herritar asko hil, gehiago zauritu eta ia emakume guztiak bortxatu zituzten militarrek, haurrekin eta edadetsuekin inongo begirunerik izan gabe. Gure etxeen bertan, Esterlines kaleko 441 zenbakikoan, historia osoan parerik gabekokasu izugarri hau gertatu zen, hara: bertatik bertara bizi izan zuten lau testigak —egia baizik ez dutenak— adierazi zidatenez, etxe horretan babes-turik zegoen hamazortzi urtekoneska guztiz polita

bigarren solairuko sukaldetan soldadu ingeles batek bortxatu eta, ondoan, balazo batez hil omen zuen. Hil-hurrenean, odoletan zegoela, koltxoi batean etzan zuten gertukoek baina, beste soldadu batek ere bortxatu nahi izan zuenez, manta bat hartu eta gatzak askatuta, neskaren gainera egin omen zuen. (...)

29. testigua Jose Maria de Ezeiza jaunak, Hiri honetako biztanle eta merkatari, testigu aurkeztu eta zin eginik, agiri honetako galderak egin zitzakionean, honela erantzun zuen.

## PALESTINAREN AURKAKO GENOZIDIOA GELDITU.

Herri memoriak piztu dezala elkartasuna.

Gure hiria setiatu zuten armada inperialek egindako ankerkerien biktimen 79 testigantza jaso zituzten orduko Gipuzkoako agintariekin, mundu guztiak jakin zean egindako kalteaz.

Hala ere, asko dira testigantza horiek isilarazi dituzten interesak. "Donostiako Sutea" da oraindik ere ere sarraskia ezkutatzeko erabiltzen den terminoa. Egun Loiolako kuartelak okupatzen dituen armada berak gure arbasoen sarraskian parte hartzeak argi adierazten digu nondik datzen interes horiek sarraskia sute bihurtzeko.

Horrela ikusten dugu nola pertsona askok ez duten inolako erreparorik gure arbasoak bortxatu eta eraile zituzten militarrez mozorrotzeko, Donostiarik pairatu zuen sarraskia "ospatzen" di-

tuzten ekintza batzuetan gerretara jolasteko edo danborra eta barrilak jotzeko. Udalak berak aurten biktimen oroimena iraidu du, abuztuaren 31 inguruan gure hirian sarraskia egin zutenen omenezko musika-pieza bat programatuz.

Hannah Arendtek sortutako gaizkiaren huskeria, hau da pertsona babesgabeen aurkako indarkeriaren normalizazioa, gure gizarteak pairatzen duen beste gaitzetako bat da, sufritutakotik ikasteko gai ez garela ematen baitu.

Horregatik, ezin gara soraio geratu gure hiriak jasan zuen sarraskia "ospatzen" duten ekintzen aurrean, eta aurten ere ezin dugu begirik itxi Israelgo armada eta bere aliatuak Gazatar herriaren aurka egiten ari diren

genozidioaren aurrean. Hemen gertatutakoa ez dugu ahazten utziko, eta jarraituko dugu Donostian pairatutakoa zabaltzen herriaren memorian gordea gera dadin, armada zapaltaileak eta haien gobernuak zigorrik gabe gera ez daitezen, beren anbizio imperialen izenean pertsona babesgabeak bortxatzem, hiltzen eta torturatzen dituztelako.

Gure oroimena izan dadila beste akiulu bat ankerkeriak lekukizango ez duen mundu baten alde borrokatzeko. Gure oroimenak lagun diezagula benetan solidarioak izaten munduko edozein txokotan bidegabekeria jasaten dituzten pertsona guztiekin gure haragitan pairatuko bagenu bezela. Geldi dezagun Palestina-ren aurkako genozidioa, zabal dezagun elkartasuna eta bakea eta askatasunaren deia.

DOIÑUA: Haize dator iparraldetik

I

Mila aitzakia du genozidak gerra beltza zuritzeko oztopo zaion edozein herri behin betiko suntsitzeko; mundu osoan, banaka, asko beti prest inor hiltzeko aginte gose, aho zabalak ta bat bera ez hitzeko, Israelek du goikoen bulda ez eskatu gelditzeko zein jainkok dio agindu horri Palestina birrintzeko?

II

Genozidetan genozidena edo bigarren apika bertakoentzat ahaztezina gogoan har Amerika; hemen gurean ehundaka urtez aritu zaigu zirika menpe hartza zuen helburu aienatzea irrika, adibideak lehen, atzo, gaur Gasteiz, Noain ta Gernika parka eskerik ez du luzatu bai gezurrezko kronika.

III

Egalité ta gehi Fraternité Liberté eurontzat soilik asmo hutsala, ez zen behar ta beraiek bezain igualik; gorroto, berriz, euskal kultura hiztunak bazter apalik, lau mila basque deserrira ta oinez, ez ur ez opilik, erdiak ia gosez, gaixorik Landetako basan hilik genozidio harek ez luke iragan behar isilik.

IV

Gatozen orain Donostiara ta jo bi mende atzera frantsesen menpe garai haretan tropak hura askatzen; ordenak betez iritsi ziren zuzen mendeku hartzera lehen unetik denak akatu ta hiria kiskaltzen, damurik ez da genozidenik lehen ta orain antzera iriak zertan behar du irten sarraski bat ospatzera?

# TERTULIA CONSTITUCIONAL DE LA BALANDRA

Reunión patriótica de varios amigos

Josu Tellabide

Donostiako historian, 1813ko sutearen eta suntsiketaren ondoren, zoritzarreko urteak etorri ziren. Donostiako eliteek eta haien arteko oligarkek negoziorako bideak eta aukerak ikusi zituzten eta, horrela, herritarren bizkar bizitzeko negozioak eginez burutu zuten beren jardueira. Adibide bat jartzearren, etxebizitzak alokatuz aberastu egin ziren.

Garai hartan berean, 1812an, Cádizko konstituzioa onartu zuten. Hor subiranotasuna Espaniako nazioan ezartzen zen eta ez erregearen pertsonarengan, ordua arte zen bezala. Gure herriko jaunxo handi-mandi hauek, liberalez jantzita, hor ikusi ziren buru eta agintari. Jaunxo horiek Sociedad Patriótica de San Sebastián delakoa sortu zuten 1820an (española, noski). Elite liberalen elkartea bat zen, Tertulia Constitucional de la Balandra ere deitzen zutena.

José Manuel Collado Parada oligarkak sortu zuen elkartea bere etxeen bertan, Esterlines kaleko 12.ean, eta han biltzen ziren. Orain dela urte gutxira arte Alde Zaharreko Osakidetzako anbulatorioa egon da eraikin horretan.

Orduko familia aberatsetako kideak ziren La Balandra partaideak: Rafael Etxagüe Birmingham jeneralia, Fermín Lasala, Eustasio Amilibia, Joaquín Calbetón eta Brunet anaia (José, Francisco eta José Manuel), Claudio Antón de Luzuriaga, Joaquín María Ferrer (azken hori Catalina de Erauso moja hiltzailearen istorioaren asmatzalea), Joaquín Birmingham, José Elías Legarda eta beste.

Aipatutako pertsonaia horiek guztiak ezagunak dira Donostiako kale izendegian, "donostiar ospetsuen" arteen. La Balandra elkartearren ezaugarri behinera liberalismoaren defentsa zen, Foruen kontrako herra eta espainiartaletasunarekin batera. Elkarteo kideentzat, euskaldunak mendietako borono batzuk besterik ez, ezjakinak, analfabetoak ginen. José Mujicak dio, Serapio Mujicaren semeak, historialaria bera ere, La Balandra presio talde eta – zehazkiago – erabaki talde boteretsu bilakatu zela, eta Donostiako udala haien aginduak betetzen mugatua zegoela. Hiriko udala eta merkataritza batzordea norabide batera edo bestera bultzatzen zituzten, eta hala gorbernatu zituzten erakundeak. Hala ere, bazituzten aurkariak ere, adibidez Juan Ignazio Iztueta, garai hartan Donostiako Lurreko Ateko zeladorea zena (gaur guardia municipal). Ezinikusi pertsonal edota politikoen ondorioz, poema anonimo politikoa idatzi zuen Iztuetak gaztelaniaz: *Cuando meto ruido/ en mi rinconcito /se asusta Legarda, /y tiembla Colladito.*

Adierazgarria da Juan Ignazio Iztuetaren postura. Bera euskarako eta Foruen defendatzaile sutsua zen. Berek dira hitz hauek: "euskeria hil ezkerro fueruak ez dira biziko". Kritikatzen zuen, garai hartan jada, maisu erdaldunak ekartzen zituztela probintziara irakastera, eta maiusu horiek euskarako etsaiak zirela. "Estos extranjeros enemigos reconocidos del mismo" (del euskeria), idatzi zuen. *Guipuzcoaco provinciaren condaira edo historia liburuan dago hori guztia jasoa.* Bestalde, Sociedad Patriótica la Balandra horrek agerkari ofizial bat ere izan zuen: *El Liberal Guipuzcoano*, arratsaldez argitaratzen zen aldizkaria. Aldizkari hori hiriko aberats eliteak bultzatu zuen zuzenean, eta ezin argiago zuen helburua: Foruak deuseztatzea eta Donostia eta Gipuzkoa monarkiaren konstituzioaren batasunean osoki eta betiko integratzea, baita Espaniako merkato ekonomikoan ere. Ideia horiek aldizkariaren goiburuan argi eta garbi agertzen ziren. Donostiako Diario Vasco egunkariaren aurrekari ideo-logikotzat jo izan da aipatu aldizkaria. Euskal Foruen kontrako eta elite liberalaren adierazpidea, alegia. Elite horiek, lehen eta gaur, urteak eta mendeak daramatzate itzaletik gobernatzen, gutxienez XIX. mendearren hasieratik. Jende hori ez dago ezinbestean erakunde publikoetan: Udalean, Batzar Nagusietan edo Diputazioan, baina gobernatu, gobernatzen du eta mediak mani-pulatzen dituzte erakundeak. Zerbait eskuetatik –beren kontrolpetik– eskapatzen bazaie, segituan jartzen dituzte martxan beren kontrolpeko tresna, baliabide eta hedabide guztiak, errekkako urak bere onera ekartzeko.



## ABUZTUAK 31KO SARRASKIA C. GAMON BHIKO IKASLEEI AZALDUA

Urtzi historia irakasleari elkarrizketa.

Iazko irailean Urtzik, Errenteriako Cristóbal Gamón institutoko historia irakasleak, Napoleonen Gerren gaia gure hirian 1813an bizi izandako errealtatera hurbildu nahi zuela adierazten zigun mezu bat jaso genuen. Berarekin bildu gara esperientzia honen berri emateko

Nola bururatu zitzaiuen ideia hori eta nola eta noiz izan ze-nuen gure berri?

Berria egunkarian argitaratutako artikulu baten bidez izan nuen zuen taldearen berri. Eta erabaki nuen interesgarria izango zela bai ikasleentzat, baita nirentzat ere, 1.813an Donostian zer gertatu zen jakitea zehatz mehatz.

Izan ere banituen erreferentzia batzuk, txikiak baziren ere, gai honen inguruan: Donostian bataila bat eta sute bat izan zela, ezer gutxi gehiago aipatzen bait da historia liburuan baita abuztuaren 31ean ingeles eta frantses uniformeak jantzita egin ohi den parodia ezagutzen nuen, baina ez neki biztanleria zibilarekin gertatu zena, ezta Espaniako Armadak eta haren komandan dantek izan zuten papera ere.

Orduan, horretan oinarritura, benetan zer gertatu zen jakitea

oso interesgarria izango zela pentsatu genuen. Horregatik jarri nintzen harremanetan zuekin.

Gogoan dut mezuan galdetzen zenigula ea ikastetzeekin edo ikasleekin lan egiten genuen. Guretzat hau lehen aldia izanda, baina niri zehazki proposamen zoragarria iruditu zitzaidan, ilusio handia egin zidan.

Gaia bi zatitan planteatu genuen, ibilbide bat Donostia hiri harresitua nolakoa zen jakin zenezaten, eta, bestalde, kriptan gaiaren inguruan egin ditugun lanen informazio-panelak eta bideo laburrak jarri genituen.

Egokia iruditu zitzaiuen?

Kriptara egindako bisita eta han jaso genituen azalpenak oso interesgarriak izan zirela uste dut, nolabait biktimen testigantzak ezagutzeko balio izan zigulako, eta beno, Donostia biztanleria zibilarentzat hura zer izan zen zuzenean ezagutzeko eta Alde Zaharreko ibilbidea ere oso interesgarria izan zelako.

Hori izan zen ikasleak gehien erakarri zituena, nolabait garai hartako Donostia zenaren inguruan kokatu zirelako, eta jakin zutelako hiria nola suntsitu zuten setioak iraun zuen egun-

netan Portugalgo, Inglaterrako eta Espaniako Armadako tropik. Halaber, Bretxaren ize-na nondik datorren edo Plaza Berria Konstituzio Plaza ize-nekoaren jatorrizko izena dela ezagutzea.

Gomendatuko zenieke bisita hori beste ikasle batzuei?

Zalantzak gabe, horrelako bisitak egin behar dira, bestela dena oso plano abstraktuan geratzen zaielako. Alde batetik, garai hori oso urrun geratzen zaielako eta gero ez dakigu-lako beraiek termino eta toki zehatzetan kokatzen.

Informazioa jasotzen dute nolabait, irentsi egiten dute, baina ez dira kokatzen. Orduan, horrelako bisita batek, biktimen adierazpenei buruzko azalpenek, hiria ikusteak, gaur egun garai hartan zutik dirauten etxeak ikusteak, erakutsi zenzigutzen planoen bidez dena nola banatuta zegoen ikusteak, beraintzat oso gertuko den ingurune batean kokatzen laguntzen die.

Guzti hau ez baita aliatuek Dresden bombardatu zutela kontatzea. Haientzat Donostia oso gertuko da. La asteburu guztieta ibiltzen dira hor, eta beraintzat ezagutu beharreko zerbaite da.

Si algo escapa a su control, rápidamente ponen en marcha todos sus recursos para que las aguas vuelvan a su cauce.

Estas élites llevan años y siglos gobernando desde la sombra. Por lo menos desde principios del siglo XIX. No si que gobierman las instituciones a través de los medios de comunicación.

Son el precedente del actual "Dílaro Vasco".

Estas élites aparecían claramente expuestas en la cabecera del periódico. Ideas constitucionales en el mercado económico español. Estas ideas establecidas por las élites aliñeras de Donostia se establecían claramente expuestas en la cabecera del periódico.

"El liberal Guipuzcano" era la publicación oficial de "La Sociedad Basañdara". Se editaba por la tarde y establecía impulsos por las élites aliñeras de Donostia. Sus objetivos eran la desaparición de los fueros y la integración de Donostia y Guipúzcoa en la unidad monárquica. Una sociedad basañdara era la que trajo a Juan Ignacio de los Fueros. Fue el quien escribió "Si el euskara

"cuando meto ruído en mi rinconcito, se asusta Laguardia y tembla Colladito".

Juan Ignacio era un firme defensor del euskara y de los fueros. Fue el quien escribió "Si el euskara

que condaría a donostiarra" escritorio "estos extranjeros enemigos de la basqueña, si no que eran acérrimos enemigos de la basqueña, si no que trajeran mestros que no solo no habla, los Fueros no sobrevivirán". Era muy critico con

el hecho de que trajeran mestros que no solo no habla, los Fueros no sobrevivirán". Era muy critico con

